

218. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria



60 urte,
hamaika proiektu



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Mailegu zerbitzu bat baino askoz gehiago	3
Zerbitzu sorta zabala	4
Datuek esaten dutena	6
Elkarlana ardatz	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Mailegu zerbitzu bat baino askoz gehiago

Liburuak izaten dira, noski, liburutegi bateko protagonista nagusiak. Alabaina, liburuak eta bestelako materiala maileguan hartzeko toki bat baino askoz gehiago da gaur egun Azpeitiko Udal Liburutegia. Elkarrekin erlazionatzeko, lanerako, ikastera joateko, egunkariak irakurtzeko zein aisialdirako gune publikotzat dute herritar askok. 60 urte betetzear da, eta esku artean proiektu ugari dituela iritsi da urteurrenera. Egitarau zabala izango da data seinalatu hori behar bezala ospatzeko.

**Elkarrekin
erlazionatzeko,
lanerako, ikastera
joateko, egunkariak
irakurtzeko zein
aisialdirako gune
publikoa da liburutegia**



Zerbitzu sorta zabala

Ipuin kontaketa bat orain. Eskulan tailerra hurrena. Irakurketa errazeko saioa. Literatur solasaldiak ere bai. Ikastaroak. Data edo gertaera jakin baten bueltan antolatutako ekintza bereziak. Azpeitiko Udal Liburutegiaren agenda begiratzea nahikoa da bizi-bizirik dagoela ikusteko.

Apirilaren 5ean beteko dira 60 urte liburutegia inauguratu zutenetik, eta hurrengo egunean hasi zen herritarrei zerbitzua ematen. Lehen pausoak Iturritxikin egin ostean, 1989an aldatu zuten gaur egun dagoen tokira, hau da, Enparan Dorretxera.

Beatriz Aranbarri, Maider Egiguren eta Eba Lopetegi langileak arduratzen dira liburutegiaren dinamizazioaz. Urtez urte, herria eta gizartea

aldatzen doazen neurrian, liburutegia bera era asko aldatu dela kontatu dute. "Erakunde dinamikoa eta aldakorra da liburutegia. Momentu hauetan, aurrerapen teknologikoekin eta jendartearen bilakaerarekin batera, liburutegiaren izaera ere aldatzen ari da", azaldu dute.

Adin guztietako herritarrek erabiltzen dute liburutegia, eta Enparan Dorretxean egoten den sartu-irtena da horren erakusle. "Adineko pertsona batzuk lehen orduan etortzen dira prentsa irakurtzera; beste erabiltzaile batzuek Internet behar izaten dute; arratsaldeetan haurrak eta gurasoak etorri ohi dira irakurtzera; liburuak mailegatzea edo egiten ditugun jardueretan parte hartzea etortzen dira beste batzuk...", esan dute langileek.



Lanerako eta ikasteko gelak ere badaude liburutegian, eta horien erabilera ere zabaldua dago herritarren artean. "Erabiltzaileen beharren eta ezaugarrien arabera antolatu ditu liburutegiak bere zerbitzuak, komunitate guztiari begira, oraingo nahiz etorkizuneko erabiltzaileei begira hain zuzen".

Aurrera begira, Azpeitiko Udal Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ahalik eta herritar gehienek ezagutzea da helburuetako bat. "Gaur egun, oraindik asko dira liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzen ez dituztenak. Haiengana gerturatzea da helburu nagusietako bat, egungo erabiltzaileen beharrak ahaztu gabe".

LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK

- Erabiltzaileen prestakuntza, zerbitzuak era autonomoan erabili ahal izan ditzaten.
- Kontsultarako, lanerako, ikasteko eta aisialdirako guneak.
- Informazio bibliografikoa eta erreferentzia zerbitzua, ikasketa, ikerketa eta informazio beharrei erantzuteko.
- Liburutegiko funtsen maileguak:
 - Ohiko maileguak: liburutegiko materiala etxera eraman daiteke liburutegiko bazkide txartela erabiliz.
 - Talde bereziei mailegua: herriko erakundeei, elkartei, ikastetxeei...
 - Liburutegi arteko mailegua
- Irakurzaletasunaren sustapena: azken urteetan, haur eta gazteek irakurtzen dutena ulertzeko zailtasunak dituztela nabaritu dute hezkuntza arloko hainbat ikerketatan. Haur eta gazteen artean irakurtzeko ohitura sustatzea inoiz baino beharrezkoagoa dela iritzita, hainbat ekintza antolatzen ditu liburutegiak.
- Ekintza soziokulturalak: liburutegiko baliabide eta ekintzek komunitatean oihartzun zabalagoa izan dezaten, hausnarketa, eztabaida eta adierazpen askatasunaren aldeko egitasmoak antolatzen ditu liburutegiak.
- Interneterako sarbidea eta wifia: ordenagailu, telefono edo bestelako euskarrien bidez Internetera konektatzeko aukera, arrakala digitala saihesteko.
- Herriko bilduma: herriko gaiei, egileei eta ekintza kulturaleri buruzko bilduma.
- Fotokopia zerbitzua: maileguan eraman ezin diren dokumentuen kopiak egiteko.
- Premia bereziak dituzten gizabanako eta taldeentzat zerbitzuak: material eta ekipa bereziak herritarren beharrei erantzuteko.

Datuek esaten dutena

Azpeitiko Udal Liburutegian dagoen martxaren erakusle ezin hobea dira iazko datuak. Hazten jarraitzen du, bai bazkide kopuruan, bai eskuragarri dituen dokumentu kopuruan. Gaur egun, ia 7.800 bazkide ditu liburutegiak, horietatik 344 azken urtean egindakoak. Bazkide gehienak (%81) 18 urtetik gorakoak dira, eta, proportzioan, emakumeak (%56) gizonak (44) baino gehiago dira; bazkideen %18 haurrak dira, eta erakundeen ehunekoa ez da %1era iristen.

Erabiltzaile kopuruari begiratzuz gero, 75.784 erabiltzaile izan zituen iaz zerbitzuak: 58.956 liburutegian, 13.843 telefonoz eta whatsapppeztan eta 2.985 KZgunean. 2.240 dokumentu berri eskuratu zituen 2023an liburutegiak, eta dagoeneko 48.611 dokumentuk osatzen dute haren katalogoa. Erdiak pasatxo (%53) gaztelaniazkoak dira; euskarazkoak, %43; eta beste hizkuntza batzuetakoak osatzen dute gainerako zatia.

Maileguetan ere antzeko proportzioa ikusten da hizkuntzetan. 30.627 mailegu egin ziren iaz, %43 euskarazko dokumentuenak eta %55 gaztelaniazkoenak. Beste liburutegi batzuetako dokumentuak maileguan hartzeko zerbitzua ere eskaintzen du Azpeitiko Udal Liburutegiak, eta mota horretako 2.796 mailegu egin ziren iaz.

Eusko Jaurlaritzak Liburutegi Zerbitzuak emandako datuen arabera, eliburutegian 633 mailegu egin zituzten Azpeitiko erabiltzaileek, aurreko urtean baino 22 gutxiago, eta 91 erabiltzaile aktibo daude gaur egun.



Zein izan ziren iaz liburutegian gehien mailegatutako dokumentuak?

Helduak, euskaraz:

Aitaren Etxea (Karmele Jaio)

Erretzaile damutuen konpainia

(Aingeru Epaltza)

Gari eta goroldiozko (Anari)

Helduak, gaztelaniaz:

Contando atardeceres (La vecina rubia)

Lo último que me dijo (Laura Dave)

Las Madres (Carmen Mola)

Elkarlana ardatz



60. urteurrena ospatzeko egitarau zabalaz goatzeko aukera egongo da datozen asteetan

Poesiaren Nazioarteko Eguna izaten da martxoaren 21ean, eta egun hori baliatu zuten Azpeitiko Udal Liburutegiaren 60. urteurreneko egitarauari hasiera emateko: Apoako kideen ahotsean, poesia errezitaldia egin zuten; egun berean, 3-5 urteko haurrei eta haien gurasoei zuzendutako irakurketa kluba ere izan zen, Maria Garcia Laderok gidatuta. Hala ere, hasi besterik ez dira egin ospakizunak, eta egitarau zabalaz goatzeko aukera egongo da datozen asteetan.

Adin, premia eta gustu guztiak kontuan hartuko dituen eskaintza izango da. Ipuin kontaketak, irakurketa kluba, irakurleen txokoa, kontu kontakantaldia eta eskulan tailerra izango dira haurrentzat. Eskulan tailerra ez beste jarduera guztiak liburutegian bertan izango dira; eskulan tailerra,

- Komunitatea saretzeko ahalegina
- Herritar guztientzat ateak zabalik
- Herriko eragileekin elkarlana

berriz, ludotekarekin batera antolatuko dute, eta plazan izango da.

Helduentzat ere mota askotako ekitaldiak izango dira: irakurketa errazeko festa (Goienetxe fundazioko eta Biharko eguneko zentroko taldeekin), Ander Izagirrereren hitzaldia *Vuelta al País de Elkano* liburuaren inguruan; eta Miren Amurizaren *Basa* liburuari buruzko literatura solasaldia (egitarau osoa hurrengo orrialdean).

Urteurrenaren harira, komunitatea saretzeko egiten duen ahalegina azpimarratu nahi izan du liburutegiak. Era berean, herritar guztientzat ateak zabalik dituen zerbitzu publikoa dela eta herriko eragileekin elkarlanean aritu nahi duela aldarrikatu nahi du. Horiek guztiak irudikatzeko eta urteurreneko egitaraua iragartzeko, argazki bat atera zuten orain aste batzuk liburutegiarekin harreman estua duten herriko eragileek eta liburutegiko langileek.



AZPEITIKO UDAL LIBURUTEGIA

AZPEITIKO UDAL LIBURUTEGIAREN 60.URTEURRENEKO EGITARAUA

POESIA ERREZITALDIA

Apoako kideen ahotsean
Martxoak 21, Poesiaren Nazioarteko Egunean
18:00etan, Azpeitiko Udal Liburutegian

IRAKURKETA KLUBA 3-5 URTEKO HAURRENTZAT ETA HAIEN FAMILIENTZAT

Mari Garcia Laderoren eskutik
Martxoak 21, 17:30ean
Apirilak 24, 17:30ean
Maiatzak 20, 17:30ean
Azpeitiko Udal Liburutegian
Aurrez izena eman behar da

IPUIN KONTAKETA

Lupe Lekuonaren eskutik
Apirilak 9, 17:30ean, Azpeitiko Udal Liburutegian
HH4ko haurrentzat
Aurrez izena eman behar da

IRAKURLEEN TXOKOA LH3-LH4

Apirilak 18, 17:30ean, Azpeitiko Udal Liburutegian
Poesiaren bidean barna
Aurrez izena eman behar da

KONTU KONTA KANTALDIA

Itziar Saenz de Ojer-en eskutik.
Apirilak 23, 17:30ean, Azpeitiko Udal Liburutegian
4 urtetik aurrera, helduentzat ere bai
Ipuin musikatuak
Aurrez izena eman behar da

IRAKURKETA ERRAZEKO FESTA

Apirilak 25, 11:00etan, Azpeitiko Udal Liburutegian
Goienetxe Fundazioko eta Biharko Eguneke
Zentroko taldeekin irakurketa eta festa

ANDER IZAGIRREREN HITZALDIA

Apirilak 25, 18:00etan, Azpeitiko Udal Liburutegian
Vuelta al País de Elcano liburuaren inguruan
Euskaraz

ESKULAN TAILERRA PLAZAN

Apirilak 26, 17:30ean Azpeitiko plazan
Liburu abenturak eskulan tailerra
Ludotekakoekin elkarlanean
Aurrez izena eman behar da

LITERATURA SOLASALDIA

Apirilak 30, 18:00etan, Azpeitiko Udal Liburutegian
Basa, Miren Amurizaren liburuaren inguruan
Pako Aristik dinamizatuta

IPUIN KONTAKETA

Pello Añorgaren eskutik
Maiatzak 8, 17:30ean, Azpeitiko Udal Liburutegian
HH5eko haurrentzat
Aurrez izena eman behar da

IZENA EMATEKO

📞 943157195

📱 688 815 506

Azpeitia
Denontzat